

B

BARREN

TOKIKOM

“Zorionez, zorrik gabeko Udala daukat”

Joaquin Ormazabal,
Yebeseko (Guadalajara) alkatea



SAN ROKE KAFETEGIA

KAFETEGIA

SAN ROKE 18, BEHEA

- ◆ Gosariak
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Kazolatxoak
- ◆ Plater Konbinatuak
- ◆ Pintxoak
- ◆ Kartako bazkari eta afariak enkarguz hartzen ditugu.

Gaur

Garagardoa 1€ + txistorra pintxoak DOAN
arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara

**OGIA
SALTZEN
DUGU!!**

Ekarri ezazu zure publizitatea

BARREN astekarira
eta guk banatuko dugu
Elgoibar eta Mendaroko
etxeetan.

Banatzailea

**943 744 112 telefonoan
eska ezazu informazioa!**



Saltokiak jai egunetan irekitzearen eztabaida

Joan zen domekan mila lagunetik gora bildu ziren Bilbon, saltokiak jai egunetan irekitzearen kontra, *Jai egunetan denok jai* lemapean. Euskaldenda eta Dendartean merkatarik elkarrekin sustatutako manifestazioa izan zen, eta ELA, LAB, CCOO, UGT, Euskal Kontsumitzaileen Erakundea, Merkatarik Elkartea eta beste hainbat merkatarik hartu zuten parte.

Gaur egun dendak zabaltzen diren ordu kopurua nahikoa bada eta bezeroek aldaketarik eskatu ez badute, zeinek behar du saltokiak egun gehiagotan irekitzea? Igandetan eta jai egunetan irekitzearekin irabazten duten bakarrak herrietako merkataritza ito nahi dutenak dira. Egoera horretara iristen garenean, kompetentzia ahuldu egingo da eta herritar xehearen poltsikoetan igarriko da, bereziki.

Saltokiak egun gehiagotan irekitzeak salmenta gehiago ekarriko dituela esanez justifikatzen dute batzuek eskaera hau, baina salmentak berdinak izango dira, lanordu gehiagotan banatuta. Hau da, ez gara merkaturik lehiatzeko gai izango, gure kostuak gehitu egingo direlako, diru-sarrerak bere horretan mantentzen diren bitartean. Egoera honen gaur egun bideragarriak diren saltokiak itxi egingo dira, ezin izango dutelako saltoki handiekin eta banaketako enpresa handiekin lehiatu. Horiek dira jai egunetan saltokiak irekitzea nahi dutenak, aisialdirako toki itxien bidez, beraien interes inmobiliarioak sustatzen direlako.

Jai egunetan dendak irekitzen dituzten Espainiako herrietako datuen arabera, lanpostuetan %3,3ko beherakada izan dute, Euskal Herrian baino handiagoa. Euskaldenda elkarrekin jakinarazi duenez, Madrilgo Erkidegoan egon da lanpostuen jaitsierarik handiena, hain zuzen ere, ordu-tegi anitzaren adibiderik garbiena daukagun lekuan. Ratio hau sektore txikiko lanpostuetara eramanda, 321 lanpostu gehiago galduko liriteke. Ez dezagun merkataritza txikia akabatu, herriari bizia ematen dio-eta. Guztion artean eutsi diezaiokegu.



Maria Jesus, Isabel, Onintza, Mari Jose, eta Mari Tere,
Txankakua merkatarik elkarrekin izenean

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Ez dezagun merkataritza txikia akabatu, herriari bizia ematen dio-eta”

ESKERTZA

**GLORIA
MAIZTEGI AGIRREGOMEZKORTA**



*Gure ondotik
joan zara,
baina betiko izango zaitugu
gure bihotzean.*



2012ko martxoaren 12an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana. Haren oroimenez meza izango da, domekan, martxoak 18, goizeko 10:30ean San Lorentzoko elizan. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

HAPO eta herritarren parte-hartzea

Otsaileko Udalbatzarrean EAJK, PSE-EEK eta PPK Hiri Antolamendu Plan Orokorra (HA-PO) behin-behingo onartu zuten, Bilduren kontrako botoekin, hain zuzen. Hasieran uste genuena esan dezakegu orain: hirigintzako plangintza idazterakoan herritarren parte-hartzea legeak behartutako tramite hutsa izan da eta bere helburua legitimitatea lortzea zen.

Alde batetik, prozesura "gonbidatutako herritar eta gizarte eragileek" eta aurkeztutako alegazioek ez dute inolaz ere 1.300 etxe berri baino gehiago eraikitzearen alde egin. Udal agintariak Elgoibarko biztanleriaren hazkundearen datu ofizialei eta etxebizitza eskerei erreparatuko balie, baztertu egingo lukete neurritz kanpoko plan hori eta benetako beharretara egokituko lukete.

Bestetik, Mintxetakoa bezalako 48 futbol zelai okupatzeko adina lurzoru industriarako bideratu beharra defenditu duen "herritar parte-hartzailerik" inon ere ez dugu ezagutu. Halaber, berrehunrik gora biztanlek alegazioak aurkeztu ditugun arren -hauetako 130ek garapeneko plangintza osoa jartzen zuten zatlantzan-, hamar besterik ez dituzte ontzat eman. Laburtzeko, itxura emateko jarrera izan dela herritarren esku-hartzea, erabakitze ahalmen txikienik ere ez zuten-eta.

Dokumentuak berak ere argi eta garbi airtortzen du, parte-hartzeari buruz zera dionean: "esperientzia hori etorkizunean hobetu egin behar da, azkenean politika publiko gardenagoak egiteko tresna bihurtu dadin." Gardenegiak izan ez direlako, jakina.

Okil beltzak ☹

Enplegu sortzeko lan erreforma

Lan erreforma enplegu egonkorra sortzeko eta Espainiak hazkundea berreskuratzeko erreforma da. Espainiako arazo larrienari eraso dion erreforma osoa da: langabeziari, alegia.

Espainiak lan erreforma orekatua, betea eta eraginkorra behar du, enplegu egonkorra sortzeko eta merkatua malgutzeko.

5,3 milioi langabetu, gazteriaren erdia lanik gabe eta aurrekaririk gabeko burmuin ihe-

sari aurre egiteko, langabezia gainditzeko neurriak indartuko dituen eta partxe-politikari amaiera emango dion erreforma betea behar da.

Lan erreformak marko egonkorra sortuko du, enpresari eta langileek enplegua sortu eta mantentzeko. Kaleratzea azken aukera izan dadin, akordioak lortzeko bideak eskaintzen ditu, eta kontratu mugagabeak sustatzen ditu, langabeziak kalte gehien eragin dienen artean: gazteak eta epe luzeko langabetuak.

Kontratazio egonkorreko neurriak gehitzean, enpresarietako (esperientzia eta ezagutza handiagoko langileak izango dituelako) eta langileentzako (egonkortasuna eta lanerako aukera gehiago izango dutelako) hobekuntzak ekarriko ditu. Erreformak, bereziki, gazteei ekarriko die onura, izan ere, gazteak kontratatzen dituen enpresak laguntza fiskal izango dituen-eta.

Elgoibarko Alderdi Popularra ☹



Ainhoa Lendinez

Kaixo Iñi! Elurra pixkanaka eguzkiari ari zaio bidea ematen eta mendi-lasterketak ere hemen dira... Zer moduz Zuzenien? Karakateko igoera egin ostean, neuri ere mendi-lasterketen arra esnatu zait. Zuek egindako bidetik igo nuen nik ere. Gora nindoala ohartu nintzen urduri nindoala, lasterketan parte hartzen ariko banintz bezala. Bidean zale asko ari ziren argazkiak ateratzen, epaileak ere bai kronoarekin eskuan... eta batek baino gehiagok bota zidan: “hi neska, dortsala?” Ta nik lasterketatik kanpo nintzela azaldu behar...



Iñigo Lariz

Gai mardul eta polemiko batekin zatoz oraingoan. Mendi lasterketekin liluratuta eta maiteminduta dagoen jende asko dago, baina ez dira gutxiago horrelako kirol ekintzak ulertu ez, eta gainera egin nahi ez dituztenak. Esan beharrik ez dago zein talderekin sentitzen naizen identifikatuago.

Nire ustetan arazoa ez da mendian korrika egitea edo lasterketek dakarten momentuko masifikazioa. Ongi diozun bezala hori ezerezean gelditzen da lasterketa amaitzearekin bat. Arazoa froga hauek mendizaletasunak dauzkan balioak galtzeko daukaten joera da, lehiakortasun sutsuak bultzatuta. Mendira goazenean garrantzitsuena ez da zein abiaduratan goazen, asko mendira lasaitasun eta bake bila joaten dira. Beste batzuk, ordea, ahalik eta bizkorren joanda gozatzen dugu. Baina inguru natural batean egonik, ingurua aurkitu dugun bezala edo hobeto lagatzen ahalegindu behar dugu. Lan horretan antolakuntzek badute zer esana, baina kirolarien ardura da hori. Ez genuke ahaztu behar mendizaletasunaz gozatzen gaudela eta honek dauzkan balioak mantendu beharko genituzkeela, beste abiadura batean mugitzen garela soilik.

“Kirolariak ingurua zaintzen dute, eta mendiak ez du xarmarik galtzen lasterketengatik”

Malda pikoak eta San Inazioopera zuzen-zuzenien. Ondo bidean, dortsal eta guzti itzuliko naiz datorren urtean. Baina denak ez dira mendi-lasterketa zaleak, Iñi. Badaukat lagun bat halako lasterketak gustuko ez dituenak. Masifikazioak eta mendia ez omen dira bateragarriak. Nik esaten diot, Zegama-Aizkorri ikusiko balu, edo Aloñako lasterketa, seguraski ulertuko lukeela nik zer sentitzen dudan halako lasterketetan. Berak dio mendia lasaitzeko, aske sentitzeko eta pentsatzeko lekua dela, eta lasterketen zaratak hori hautsi egiten duela nolabait. Nik, berriz, erakutsi nahi diot, lasterketak hasi eta amaitu egiten direla. Mendizale eta kirolariak ingurua zaintzen dutela, eta mendiak ez duela inolako xarmarik galtzen halakoengatik. Euskal Herrian ditugun mendi-paraje zoragarriak bakarrak dira, eta halako lasterketetan, korrikalarien sufrimendua eta ingurukoen animoak elkartzen direnean, mendia eta euskaldunak bat garela sentitzen dut. Nere laguna Hiru Handiak ikustera eramango dut aurtan, eta seguru azaroan Karakate gainean egongo dela gu animatzen... ez duzu uste?

“Inguru naturalean egonik, ingurua aurkitu dugun bezala lagatzen saiatu behar dugu”

Bukatzeko, esan beharra dut, ongi diozun bezala, euskaldunok begirune eta afizio berezia diogula mendiari. Horrek mendi lasterketetan geroz eta partaide gehiago izatera garamatza, baina kirol askotan bezala nesken parte hartzea ez da oso altua. Beraz animo neskak, ahalegin pixka baten truke ikaragarriko gozamina izango duzue-eta!



I. URTEURRENA

JOSEBA ARGARATE UNTZILLA

2011ko martxoaren 24ean hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 24, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Madalako eliza zabaldu dute, hiru hilabeteko obren ostean

Atzo goizeko eukaristiarekin zabaldu ziren atea



Hiru hilabeteen itxita egon ostean, atzo zabaldu zuten berriro ere Madalako eliza. Obrak egin behar izan dituzte eliz-barruan hezetasunak sortutako arazoengatik, eta hori izan da eliza itxita eduki izanaren arrazoia. Azken urteetan beste zenbait aldiz ere izan dute arazo berdina, eta lau urtean behin hormak margotu behar izan dituzte. Oraingoan, ordea, arazoa larriagoa izan da, eta horregatik luzatu dira konponketak horrenbeste.

Atzo goizeko eukaristia ez da azkena izango. Aurrerantzean ere 8:15etatik 13:30era zabalik izango da eliza egunero, eta Hitzaren Liturgia egingo dute astelehen, eguazten eta barixakuetan 9:00etan.

Floren Aoizen hitzaldia eta elkarretaratzea antolatu dituzte



Floren Aoiz Independentistak sareko kidearen hitzaldia antolatu du martxoaren 27rako Arnaldo Askatu Politika Askatu plataformak. Idazlea, zutabegilea eta politika munduan urte asko daramatzan ezker abertzaleko militantea da Aoiz, eta "1512, 1937, 2012 Independentzia!" izango da martxoaren 27an eskainiko duen hitzaldiaren izenburua. Era berean, Bateragune auziko sententziaren aurrean aurkeztuko duten helegitea dela-eta, elkarretaratzea deitu du plataformak martxoaren 28rako.

Hezkuntza Batzordea sortzearen aldeko mozioa aurkeztu du PPK

Datorren Udal Batzarrean horren inguruan eztabaidatu eta erabaki bat hartu dadin, Hezkuntza Batzordea sortzearen aldeko mozioa aurkeztu du Elgoibarko PPKo ordezkari den Javier Nuñezek. Nuñezen arabera, joan den legegaldian aurrekontuetan diru bat hezkuntzarako bideratuta egon arren, eta PPK eskatu zuen arren, ez zen Hezkuntza Batzorderik sortu, eta horregatik aurkeztu du mozioa: datorren Udal Batzarrean eztabaida sortu eta horren gaineko erabaki bat hartu dadin. PPKo ordezkariaren iritziz garrantzia berezia dauka batzorde hori sortzeak, eta horretan, Udaleko ordezkari politikoak ez ezik, herriko hezkuntza zentru guztietako ordezkariak eta guraso elkarteetakoek ere parte hartu beharko luketela uste du zinegotzi popularrak.

IK4-Idekok % 5eko igoera izan du sarreretan 2011n

IK4-Idekok 7,7 milioi euroko sarrerak izan zituen 2011. urtean, 2010an baino %5 handiagoak. Horrez gain, SCI (Science Citation Index) aldizkarietan hamabi artikulua publikatu ditu, eta patente bat ere lortu du European.



Gazte Asanbladarekin sagardotegira joateko tiketak salgai daude

Datorren martxoaren 30erako, barixakurako, antolatu du Gazte Asanbladak urteroko sagardotegira irteera. 20:30ean irtengo da autobusa King-Kongetik, eta Astigarragako Etxeberria sagardotegian afaldu ostean Hernanin parranda botatzeko plana proposatu dute asanbladakoek. Tiketak Gaztetxean daude salgai, eta gaur iluntzean eta bihar erosi ahalko dira. Informazio gehiago: www.elgoibarkogazteasanblada.blogspot.com blogean.

Izena **Eneko Iturbe**



Eneko Iturbe elgoibartarrak aurkeztutako lan bat aukeratu dute Getxo Moda erakusketa entzutetsuaren barruan egiten den Diseinatzaile Berriak lehiaketako finale-rako. Epaimahaiak aukeratu-ko du irabazlea hamar finalisten artean, baina diseinatzaile gazteen lanek Internet bidez jasotako botoak ere hartuko dituzte kontutan epaileek. Lehiaketako arduradunen Facebook orrian eman daiteke Iturberen lanen aldeko botoa. Bartzelonako ESDi moda eskolan ikasten dihardu diseinatzaile elgoibartarrak.

Lekua **Guasseko aparkalekua**



Dagoeneko prest dago Guasseko aparkalekua lekuak gorde dituztenek bertan apartatu dezaten. Guasseko aparkalekuaren erabilera murrizta zela-eta aparkalekuak hila-beteko 25 euroko prezioan gordetzeko aukera eman zuen Udalak. Guztira 26 leku gorde dituzte oraingoz ostalari enpresa biren, auto enpresa baten eta partikular biren artean. Kolore horiarekin markatu dituzte leku horiek, euren jabeek ez beste inork ez dezan bertan apartatu.

Bioenergetika tailerra antolatu du Haizeak biharko

Bioenergetika tailerra antolatu du Haizea emakume taldeak bihar goizeko 10:00etatik 14:00etara bitartean, Kultur Etxean. Bi lengo-
aia batzen dituen ikuspegi terapeutikoa da bioenergetika: ahozko lengoia eta gorputzarena.

Pertsonen ongizatea, harremanen kalitatea eta bizitzan dituzten helburuak lortzeko aukerak areagotzen dituzte bi lengoia horiek.

IMHk langabetuentzako hiru orientazio saio egingo ditu martxoan

Orientazioa eta egiaztapena enpresan sustatzeko proiektuaren baitan, Adegik enpresei bideratutako sentsibilizazio ekintzak burutuko ditu, eta IMHk berriz, langabetuei zuzendutako hiru orientazio saio.

Saio bakoitzean gai nagusi bat landuko dute: harrera eta taldeko pertsonen interesen azterketa lehenengoan, egungo egoeren azterketa eta motibazio lana bigarrean, eta enpresak eskatzen duenaren azterketa hirugarrenean. Saio horietan parte hartu nahi duenak 943 744 132 zenbakira deitu behar du edo leire@imh.es helbidera idatzi.

Martxoaren 29ko greba antolatzeko, greba batzordea bihar goizean

Martxoaren 29rako gehiengo sindikalak Hego Euskal Herrian deitutako greba antolatzeko greba batzorde irekia antolatu dute bihar 11:30erako. Kultur Etxeko sotoan izango da asanblada eta "herritar arduratsu" guztiak gonbidatuta daudela jakinarazi dute deitzaileek. Lan erreforma eta greba deialdia izango dira landuko diren gaiak, eta langile, ikasle, pentsiodun edota interesa duen edozeinek hartu dezake parte.


Urtebete pasatu da Fukushimako istripu nuklearra gertatu zenetik.

Zein iritzi daukazu energia nuklearrari buruz?



David Merino
36 urte

Horretan dihardut lanean, eta nire ustez hobe da energia berriztagarrietan inbertitzea. Energia nuklearrak hondakin asko sortzen ditu, eta horiek ondo gorde behar izaten dira, denbora luzez. Gainera, energia nuklearra arriskutsua da, eta istripuren bat gertatuz gero, kalte handiak eragiten ditu.



Mikel Olaizola
20 urte

Energia nuklearretik energia asko lortzen da, erraz eta merke, nahiz eta luzera beste kostu batzuk dituen. Baina energia nuklearra ez dago gure esku eta ezin dugu kontrolatu. Arriskutsua da, eta horren atzean interes ekonomikoak daude. Energia gutxiago kontsumitu behar da.



Lore Etxeberria
23 urte

Denok dakigu energia nuklearrak zein arazo dituen. Istripu bat badago, oso arriskutsua da, eta sortzen dituen hondakinak oso kaltegarriak dira. Kostu handiak ditu, eta eredu kapitalista honen beharrak asetzeko soilik da beharrezkoa. Eredu ekonomiko hori, gainera, patriarkala da eta ni kontra nago.



Susana Armendariz
43 urte

Zentral nuklearrak kentzen badituzte, hobeto. Nire lagun batek Geroñan egin zuen lan orain dela urte asko, eta orduan ere pitzadurak zituela gogoratzen du. Oso arriskutsua da. Hobe da eguzkiaren edo haizearen energia erabiltzea eta nuklearra baztertzea.

■ SEMAFOROA






Santa Ana kaletik Trenbide kalera doan bidean zuloak daude: "Santa Ana kaleko errotondatik gora doan bidean zuloak daude. Asfaltoa hondatuta dago, eta errepidea zulatuta dago. Bide hori ez da oso zabala, eta errubera zuloan ez sartzeko ahaleginean, kontrako norabidean sartzen da auttoa eta horrek arrisku handia sortzen du. Eskertuko genuke ingurune horretako zuloak ahalik eta azkarren konpontzea. Mila esker".



Txalo bero bat Udalari, Madalako karpa jartzea-gatik: "Inauterietarako karpa jarri zuen Udalak Madalan, eta kendu ez duelako txalo bero bat eman nahi diogu. Bide batez, neguko hila beteetan karpa jarrita edukitzeko eskatu nahi genioke Udalari, izan ere, euria egiten duenean umeekin egoteko leku gutxi dago Elgoibarren, eta horrelako guneak primeran etortzen zaizkigu".



Zuen kekek, galderei, edo txaloeak bidaltzeko:
barren@elgoibarbarkezarra.com 943 744 112

txatxaran



Naiara Martin, Elgoibarko Izarrako aisialdi saileko zuzendaria eta Maialen Astigarraga, Gaztelekuko koordinatzailea.

naiara martin

eta

maialen astigarraga

Izarraitz konkistatzeko erronka jo diete herriko gaztetxoei, Elgoibarko Izarrako Gaz-T taldeak eta Gaztelekuak. Telebistako 'El conquistador del fin del mundo' programa oinarri hartuta, pazko astea probaz-proba igartzeko aukera eskaini diete estreinakoz antolatutako egonaldi berezi honekin. 55 euro ordaindu beharko ditu nerabe bakoitzak eta Elgoibarko Izarran edo Gaztelekuan eman daiteke izena.

“Reality bat izan arren,
‘Conquis’ programan
balore positiboak
ere erakusten dira”

Kuriosoa da eskaintza. Zein helbururekin antolatu duzue egonaldi berezi hau?

Natura ezagutzea eta naturan bizitzen ikastea. Ikasiko dugu sua egiten, egunero ibili egin beharko dute ur bila joateko, ikasiko dute jatekoa taldean banatzen... Reality bat izan arren, *Conquis* programan balore positiboak ere erakusten dira.

Nolakoak izango dira hiru egun horiek?

Ez dakigu. Datorren taldearen arabera izango dira. Egunero probaren bat egongo da, eta hor lehia. Haserrerik gabeko egunak izatea, hori da espero duguna.

Izarraitzen konkista... ideia nondik atera duzuen ez dago galdetu beharrik, ezta?

Ez, hori da: telebistako reality-tik hartu dugu ideia, eta zerbait moldatuta prestatu ditugu hiru egun horiek. Azken batean, beste udalekuetan bezala, hau ere elkarbizitza bat izango da, baina naturatik inoiz baino gertuago eta lehiaren xarma horrekin. Ikusi egin beharko da nola pasatzen diren hiru egun horiek; telebistari begira egotea erraza da, baina norberak hor egon behar duenean asko aldatzen dira gauzak. Hala ere, ideia reality-koa da, baina gurean ez dago kaleratzerik, helburua ez da batek irabaztea.

Eta, Maritxalar edo Kortarik bai?

Bai! Elgoibarko bi gazte izango dira gure kapitainak.

Aurreratuko dizkiguzue izenak?

Ez. Bi elgoibartar gazte direla eta gogotsu daudela bakarrik esan dezakegu. Bi izango dira, eta talde bana izango du bakoitzak.

Talde horiek telebistan bezala, leku desberdinetan emango dituzte hiru egunak?

Bai. Bi kanpaleku egongo dira eta probak irabazten dituen taldeak hobariak izango ditu jatekoan, lo-lekuan edo dena delakoan. Azken batean, hiru egun mendian pasatzera goaz. Inork ez du ohean lo egingo, baina baliteke talde batek teilatupean lo egitea eta besteak ez. Edo batzuk bigarren egunean akaso dutxa bat irabaziko dute eta besteak ez. Eguraldi ona egitea espero dugu, baina mendian gaude, eta euria egiten badu, euritan egin beharko dugu lo.

Gosea pasatzen dute telebistan. Egongo da jatekorik?

Jatekoa izango dute noski, eta hiru egunean ez da inor gosez hilko. Baina ez dute izango etxeko hozkailurik.

Telebistan bezala, txerri gordinari egin beharko diote haginka gazteek?

Garbi dago guk ez daukagula telebistakoen azpiegiturarik ezta gaitasun ekonomikorik ere.

Baina, hala ere, argi izan behar dute gazteek probak benetakoak izango direla, ez direla soilik fisikoak izango. Izarraitzen egongo gara, eta gogor jokatu beharko dute.

Saiatu proiektua

Besteen mina arintzeko saiakera

Dagoeneko urtea bete da Saiatu proiektua martxan jarri zutenetik. Gipuzkoa osoan zaintza paliatiboak eskaintzea da Saiatu proiektuko kideen lana, eta esan bezala urtebete lanean daramaten arren, gipuzkoar askok ez dauka oraindik orain euren berri. Horregatik jo dute Saiatukoek BARRENEKO atea. Herritar ugari euren laguntza gustura hartuko luketelakoan, Saiatuko kide diren Josune Artetxe erizain-laguntzailearekin eta Olatz Romero medikuarekin aztertu ditu BARRENEK proiektuaren nondik norakoak.

Proiektuaren arduraduna den Naomi Hassonen inizatibari esker sortu zen Gipuzkoan zaintza aringarriak eskaintzeko proiektua. Euskal Herrian urte asko daramatzen arren, irlandarra da jaiotzez Naomi, eta han egindako ikasketei lotuta egin zituen praktikatetik hartu zuen proiektu honetarako ideia: Irlandan oso hedatuta dauden ospitale antzeko batean egin zituen praktikak. Hiltzear dagoen jendea jasotzen dute ospitale horiek eta azken batean, zaintza aringarriak dira horrelakoetan ematen direnak. Gerora, Euskal Herrian ingeleseko irakasle moduan jardun izan du Naomik hamabost urtean, baina beti gorde izan du orduan ikasitakoarekin proiektuaren bat aurrera eramateko gogoia. Hala sortu zen, beraz, zaintza aringarriak eskaintzeko Saiatu proiektua.

Zaintza aringarriak

Hiru hilabete inguruko bizitza-epaia duten gaixo sendaezinei laguntzen diete Saiatukoek, hil arteko tarte horretan gaixoaren eta bere ingurukoaren mina arintzea baita euren lana. Gaixo horiek sendatzea ez da beraien helburua. Badakite pertsona horiek ez direla sendatuko, baina hala ere, bukaerako fase horretan egiteko asko egon daitekeela uste dute Josunek, Olatzek, eta gainerako lankideek. Laguntzea da beraien lana, gaixoa eta bere ingurukoak zaintzea, eta euren ondoan egotea, zaintza ez dute-eta eurek modu sengarrian bakarrik ulertzen.

Medikuntzatik haratago

Medikuntzari ez ezik, emozioei eta pertsona horien sentimenduei ere erreparatzen ahalegintzen dira. Bi erizain, bi erizain laguntzaile, mediku bat eta gizarte langile bat daude lan-taldean, eta boluntario moduan dabilen beste mediku baten laguntza ere izaten dute. Olatz Romero medikuak berak ere aitortu duen moduan, kasu honetan proiektuaren erdigunean ez dago sendagilea, erizain laguntzaileak eta gizarte lagun-



Olatz Romero medikua eta Josune Artetxe erizain-laguntzailea, Saiatuko kideak.

Sendabide batetik haratago, gaixoaren alboan egoteak dauka garrantzia Saiatukoentzat

tzalea baizik. Diagnostiko edo sendabide batetik haratago gaixoaren alboan egoteak dauka eurentzat garrantzia. Eta ez dute hori, gainera, beti berdin egiten gaixo bakoitza desberdina delako eta bakoitzak bere denborak eta moduak behar izaten dituelako.

24 orduak guardian

Guardiako telefonoa ere eskaintzen du lan-taldeak. Romero medikua beti dago guardian, beraz.

Baina guardiako orduet gain, denbora beraien alde dutela azaldu digu Josunek. Medikuntza tradizionalako zaintzetan zaila izaten da gaixoarekin denbora lasai ematea. Eurek, ordea, orduak pasatzen dituzte etxe bakar batean eta erizain izatetik, etxeko zaintza horren partaide bilakatzen dira. Saiatuko lan-taldeak eskaintzen duen zerbitzua doakoa da erabiltzailearentzat, eta eurekin harremanetan jartzeko 666 685 038 zenbakira deitu behar da. Lan-taldeak lehenengo bisita bat egin da, familiaren eta gaixoaren egoera baloratu ohi ditu, ondoren segimendua egin dezaketen baloratzeko, eta behin hori eginda, martxan jartzen da lan-taldea.

Erretratu zaharra



1955

Aste honetako erretratu zaharra Maria Jesus Alberdik laga digu. 1955. urteko erretratua da, bere ezkontza egunekoa, hain zuzen ere. Azkoitiko parrokian ezkondu zen urtarrilean, eta urte hartan sekulako elurteak egin zituela kontatu digu. Azkoitin bertan egin zuten bazkaria, eta eztei bidaian Iruñara eta Zaragozara joan ziren. Handik itzultzean makina bat zailtasun izan zituzten errepidean, elurraren eta izotzaren eraginez. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Erasmo Alonso (†), Jose Mari Aittola (†), Maria Aldalur, Jesus Alonso (†), Mari Alonso (†), Antton Alberdi (†) eta Jose Mari Arrillaga. **Erdian:** Luis Alberdi, Matilde Alberdi (†), Joxepa Orbea (†), Salome Aranbarri (†), Susana Alberdi, Juli Alonso (†), Pakita Arrillaga, Benedicto Ibarguren (†), Jose Alonso (†) eta Mari Nieves Orbea. **Behan:** Antonia Juaristi (†), Maria Jesus Alberdi, Felix Alonso (†), Ebaristo Alberdi (†). Umeak: Maria Jesus eta Maria Isabel Ibarguren.

ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko
erretratu zaharrak
baldin badituzu,
eskertuko genizuke
gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea.
943 744 112 (Ainhoa)

B

BARREN



JOAQUIN ORMAZABAL

YABESEKO (GUADALAJARA) ALKATEA

**“Aspaldi ez naiz Elgoibarrera joan,
baina hango oroitzapenak ez ditut sekula ahaztuko”**

Aspaldi joan zen Joaquin Ormazabal Elgoibartik, baina oraindik akorduan dauzka bere haurtzaroko oroitzapenak. Bost edo sei urte izango dira azkenekoz Elgoibar bisitatu zuenetik, bere lagunekin asko gogoratzen dela aitortu du. Elgoibartarrak ere gogoratuko dira berarekin: Errosario kalean zegoen Ormazabal botikako semea da Joaquin. Nafarroako Unibertsitatean egin zituen zuzenbide ikasketak, eta ondoren, Madrilera joan zen. Guadalajarako Yebes herrian bizi da gaur egun, eta iazko Udal Hauteskundeetan *40 compromisos* talde independenteko zerrenda burua izan zen. PSOErekin akordioa eginez lortu du alkatezta, eta bere ardura berrian oso gustura dabilela aitortu du elgoibartarrak. Herriaren eta herritarren alde lan egitea da bere helburua, eta bereziki, yebestarrentzako zerbitzu eskaintza hobetu nahi du.

Elgoibartar bat Yebes en alkate. Zerk eraman zaitu politikara?

Kasualitatez izan zen. Hogei bat urte egin nituen Guadalajara eta Madril artean bizitzen, eta bizitzako hainbat arrazoiengatik Yebesera iritsi nintzen 2007an. Yebes oso herri berezia da, eta batez ere, Valdeluz izeneko urbanizazioagatik da ezaguna. Espainiako etxegintza *boom* horren barruan erai-ki zen Valdeluz. 9.500 etxebizitza eraikitzea eta 30.000 biztanle biziko zirela aurreikusitua zen, baina 2.400 etxebizitza soilik egin ziren. AVE trenaren geltokitik oso hurbil dago Valdeluz, eta zeresan handia eman zuen horrek guztiak. Ni neu Valdeluzen bizi naiz, eta PPko administrazioak bizilagun berriak ez zituen kontuan hartzen, bizilagunen talde bat osatu genuen. Neu nintzen talde horretako presidentea, eta poliki-poliki talde independente bat osatu genuen. Maiztze-ko Udalauteskundeetara aurkeztu ginen, eta orain herriko alkatea naiz.

“Elgoibarren bezala, hemen ere San Bartolome jaiak ospatzen ditugu”

Espero zenuen alkate izatea?

Hauteskundeak irabazteko asmorik ez duenak hobe du ez aurkeztea! Erroka handia geneukan. Yebesek 300 bizilagun ditu, eta Valdeluz urbanizazioak hiru mila. Gainera, euskalduna naiz, eta horrekin ere kontra egiten didate batzuk. Toki guztietan dago intentzio txarreko jendea, eta hemen ere batzuk euskalduna izatea beste fenomeno batzuekin lotzen dute. Batzuek erabiltzen dute nire jatorria kontra egiteko, baina niri berdin zait; ni oso harro nago euskalduna izateaz.

Talde independentearekin aurkeztu zinen. Zeintzuk izan ziren zuen kanpainako oinarriak?

Erreflexio talde bezala jaio ginen, eta poliki-poliki konpromisoak hartzen joan ginen. 40 proposamen egin genituen, eta herritarreki-

ko 40 konpromiso hartu genituen. Horregatik jarri genion *40 konpromisos* izena gure taldeari. Ez gara ez eskuinekoak, ezta ezkerrekoak ere. Gure kolorea horia da, eta gure ustez, farolak ez dira ez ezkerrekoak, ezta eskuinekoak ere, eta garrantzitsuena herritarren beharrak asetzeta da. Talde handia gara, heterogeneoa eta asanblada moduan funtzionatzen dugu. PSOErekin egin dugu akordioa alkatetzeta hartzeko, eta oso pozik nago.

Nola gogoratzen duzu hauteskunde gaua?

Nire bizitzako egunik zirraragarrienetakoa izan zen hauteskunde gaua. Botoa ematera joan nintzenean herritar askok agurtu ninduten, eta urduri nengoan. Une batzuetan uste nuen desastre hutsa izango zela, eta beste momentu batzuetan irabazi egingo genuela uste nuen. Sentsazio kontrajarriak nituen uneoro. Hemen politika oso konplikatu da. Bi alderdi soilik daude: PSOE eta PP. Yebes en 34 urtez egon da PP boterean (Alianza Popular lehenengo eta gero PP), eta hauteskunde autonomikoetan Maria Dolores de Cospedalek botoen %60 jaso zuen. Guk, aurkeztu berria zen talde independenteak, Udalauteskundeetan botoen %46,6 eskuratzea Valdeluzen zirraragarria izan zen. Mahaiko lehendakaria botoak irakurtzen ari zen unea ez dut sekula ahaztuko.

Eta, alkate izendatu zintuzten eguna nola-koa izan zen?

Egia esan, politagoa izan zen hauteskunde eguna. Inbestidura eguneko argazkietan larritasun aurpegiarekin agertzen naiz. PPko hautagaiak larritasun aurpegia dauka ez zutelako alkate aukeratu, eta nik alkate aukeratu nindutelako! Kurio-koa da, baina egun polita izan zen. Ilusio handiz gaude, eta gauzak aldatu nahi ditugu.

Euskal Herrian bizi izan bazina politikagintzan arituko zinen?

Nafarroako Unibertsitatean ikasten egon nintzen garaian izan nituen politikan sartzeko eskaintzak, EAJ eta EAren aldetik. Aitortu behar dut beti interesatu zaidala politika. Zuzenbidea ikasi nuen, eta orain dela bi urte Zientzia Politikoak ikasten hasi nintzen. Ardura handiko lana da, baina aldi berean aukera asko eskaintzen ditu eta oso polita da. Krisi egoera honetan ez da erraza alkate izatea, baina nik, zorio-

nez, zorrik gabeko Udala daukat. Suerte handia izan dut, Yebesekoa Guadalajara-ko udaletxerik aberatsenatarikoa delako. Gaztela Mantxako Junta oso gaizki dago ekonomikoki. 7.200 milioi euroko zorrak ditu, eta egoera oso larria dago. Gu, zorionez, ez gaude egoera horretan.

“Nafarroako Unibertsitatean nengoela izan nituen politikan sartzeko eskaintzak”

Nolakoa da Yebes?

Yebes oso herri berezia da. Imagina dezagun Elgoibar eta Mendaroko alkatea naizela, baina benetako herria Mendaroko izango balitz bezala. Herri polita da, txikia eta bitxia. Terreno handi batzuk zituen erdian, Trebiño izango balitz bezala, eta hor Guadalajara-ko psikiatrikoa eraiki zuten. Ama bisita etorri zenean harridura geratu zen: “Arrasate dirudi honek psikiatrikoarekin, eta bestetik Hondarribiren antza dauka, golfa ere badaukazuelako”, esan zidan. Horrez gain, Espainiako astronomia zentro garrantzitsuena Yebes en daukagu. Europako bigarren zentrorik garrantzitsuena da, eta mundu mailan, laugarrena. 1982ko azarotik Espainiako lehen asteroidea hemendik deskubritu zuten, eta Yebes izena jarri zioten. Datorren astean hitzarmen bat sinatuko dut, eta zentro hau bisitatze-ko aukera egongo da aurrerantzean. Benetan diot, herria oso polita da, eta bitxikeria asko ditu. Eliza ere polita da, eta San Bartolome dauka izena. Elgoibarren bezala, hemen ere San Bartolome jaiak ospatzen ditugu. Bestalde, Valdeluz makrourbanizazioa daukagu. AVEren tren geltokiaren ondoan dago, eta 15 minututan Madrilgo Atochako estaziora iristen zara. Esan daiteke, beraz, bi herritar alkate naizela. Batetik, Espainiako herri txiki batekoa, eta bestetik, biztanleen %34 atzerriarra den herri aurrerakoi eta moderno batekoa. 38 jatorritako jendea bizi da Valdeluzen.

Nolakoa da Yebeseko alkatearen egun bat?

Yebes oso herri mediatikoa da, eta telebistan asko irteten da. Valdeluz urbanizazioa dela-eta, "herri fantasma" izenez ezagutzen dute askok. Polemika handia sortu zuen Valdeluzek, lursaila Esperanza Agirrereren familia politikoarena zelako. "Pelotazo" fama dauka honek guztiak, eta askotan agertzen gara medioetan. Ni neu ere sarri gonbidatzen naute telebistako mahainguruetara, eta Telecincoko El Gran Debate saioan edota Intereconomian agertu izan naiz. Baina bestela, nire egunak arruntak dira. 22 urtez egin dut lan banketxe batean, eta goiz jaikitzen ohituta nago. 6:00etan jaikitzen naiz egunero, eta kirol apur bat egin ondoren, 8:30ak alderako iristen naiz udaletxera. Aitortu behar dut nire lana izugarri gustatzen zaidala.

Aspaldi joan zinen Elgoibartik, baina nola-ko oroitzapenak dituzu?

Asko akordatzen naiz Elgoibarrekin, eta oroitzapen oso onak dauzkat. Nire gurasoak 69an iritsi ziren Elgoibarrera, nik bi urte nituenean. Gero kanpora joan nintzen ikastera, eta Madrilen urte asko egin nituen. Baina asko akordatzen naiz nire koadrilakoekin, eta herritarrekin. Nire aita denbora luzez egon zen gurpildun aulkian eta jendea oso ondo portatu zen gurekin. Elgoibartarra sentitzen naiz. Ama eta arrebak Donostian bizi direnez, aspaldian ez naiz Elgoibarrera joan, baina hango oroitzapenak ez ditut sekula ahaztuko. Kuriosoa da, baina Elgoibarren San Inazio kalean bizi nintzen, tren geltokitik oso gertu, eta orain ere, tren geltokiaren ondoan bizi naiz; Elgoibarko jaiak San Bartolomeak ziren, eta Yebesekoak ere bai. Kointzidentzia asko izan ditut bizitzan.

Yebeseko alkateak BARREN irakurtzen al du?

Noski baietz! Ubitarteko eskolara joaten nintzen ni umetan, eta hantxe alboan zegoen Elgoibarko Izarra. Madrilen bizitzen egon nintzenean jasotzen nuen BARREN etxean, eta orain Internetez irakurtzen dut; oso gustura, gainera.

Udaletxe aberatsa daukazula esan duzu. Krisiak eragin du Yebesean?

Yebesean 2008-2009 inguruan igarri genuen krisia. Valdeluzeko urbanizazioan

9.500 etxebizitza egitea aurreikusten zen, eta 2.400 eraiki zituztenean, proiektua bertan behera geratu zen. Enpresa eraikitzaileek behea jo zuten, eta ezin izan zuten lanean jarraitu. Etxebizitzak banketxeen esku geratu dira, eta hasieran ezarri zuten prezioaren erdian daude salgai. Etxe onak dira, igerileku eta padelarekin, eta banketxeek 40 urtetarako kredituak ematen dituzte. Gazteentzako oso aukera ona da. Demagun, mutilak 1.200 euroko soldata daukala, eta emakumeak, tamalez, 900 eurokoa. Hilean 400 euro ordainduta etxe bat alokatzeko aukera dute. Valdeluzeko biztanleen %85, 0 eta 45 urte artekoak dira, eta %20, 0-18 urte artean dago. Bizitzeko oso leku ona da. 300.000 metro koadro lorategi ditugu, golfa dauka, laku txiki bat, Guadalajaratik 6,5 kilometrorra gaude eta laster kiroldegia inauguratuko dugu. Alde horretatik nahiko atzeratuta gaude oraindik. Akordatzen naiz nire aita bizi zela inauguratu zutela Elgoibarren kiroldegia, eta badira urteak nire aita hil zela! Baina, poliki-poliki aurrera goaz. Krisiarekin, beraz, kontrako norabidean goaz, eta gu une honetan orain dela urte batzuk baino hobeto gaude.

“Alderdi politiko batek ez luke zortzi urtez baino gehiago agindu behar”

Demagun nahi beste bitarteko eta baliabide dituzula. Zer da Yebesean aldatuko zenukeen lehenengo gauza?

Herritarrentzako zerbitzu gehiago jarriko nituzke. Hazten ari gara, eta hemengo administrazioak, Espainia guztikoak bezalaxe, goia jo dute. Hemengo osasun zerbitzua oso murrizta da, eta etengabe borrokan dihardut sendagile bat ez kentzeko! Euskal Herrian Osakidetzarekin asko kezkatzen da jendea, baina hemendik begiratuta, pribilegiatuak zarete. Osasun zentro berri bat eraikitzeko beharra

daukagu, herriko eskola kontzertatu edo etorkizunerako eskola publiko bat egitea nahiko nuke eta garraio publiko zerbitzua hobetuko nuke. Aukera izango banu, dudarik gabe, herritarrentzako zerbitzuak hobetuko nituzke. Osasuna, hezkuntza eta garraioak oinarritzako dira, nire ustez.

Alderdi Popularrak Espainian lortu duen gehiengo osoak eragiten al du Yebesean?

Bai, jakina. Alderdi Popularrari min handia eman dio gure taldeak, eta alkartetza galdu izana ez digute erraz barkatuko. Mesprezuak jasan behar izan ditut, baina nahiko ondo daramat. Nire ustez, alderdi politiko batek ez luke zortzi urtez baino gehiago agindun behar. Berdin zait eskuintekoa ala ezkerrekoa den, baina ez da ona zortzi urtez baino gehiago agintzea. Ez da ona Katalunian CIU 25 urtez egotea agintean, EAJ Euskal Herrian, PP Madrilen edo PSOE Andaluzian. Aldaketak egon behar dira, eta aldaketarako aukerak egotea positiboa da. Euskal Herrian alderdi politiko gehiago dago aukeratzeko, eta hori ona da. Espainiako marea urdinak kezkatu egiten nau, eta mapan kolore desberdinak egon behar dutela iruditzen zait.

Martxoak 8 pasatu berri da. Zein da emakumeen egoera politikan?

Emakumeek aginduko balute, munduak hobeto funtzionatuko luke, ez daukat inongo dudarik. Azken plenoan Yebeseko gizonen eta emakumezkoen berdintasunerako plana onartu genuen, eta oso pozik nago. Gizartea aldatzen ari da, zorionez, eta aldaketa horietara moldatu behar gara. Umetan ezagutu nuen koloreko lehen pertsona Elgoibarko Moriset doktorea izan zen! Eta orain biztanleen %34 atzerritarra den herri bateko alkatea naiz. Nola aldatzen diren gauzak! Hainbat alorretan emakumeen aldeko diskriminazio positiboa egin behar dela uste dut. Emakumeak langileak dira, eta lana eta familia uztartzeko kontu horretan gizonen baino lan gehiago egiten dute. Hori ere aldatzen ari da, eta eskerrak, baina oraindik pauso asko dago emateko. Poliki-poliki berdintasunerantz goaz, eta 20-30 urte barru ez da egongo Martxoaren 8a ospatzeko beharrik.

Arkaitz Egañak irabazi du La Union elkarteko ehiza xehe txapelketa

Elgoibartarrak bigarren urtez segidan jantzi du txapela



La Union elkarteko bazkideek Elgoibarko ehiza xehe txapelketa jokatu zuten asteburuan Zanbranan, eta bigarren urtez jarraian, Arkaitz Egaña izan da irabazlea, zortzi galeper botata. Ioseba Aizpiri izan zen bigarrena, eta Santi Carrascosa hirugarrena. Beteranoetan, Alipio Alonso izan zen irabazlea, eta emakumezkoetan, Jugatz Juaristi. Hauek guztiak Debabarreneko ehiza xehe txapelketa jokatu dute irailean.

Kirol Campusean izena emateko epea martxoaren 23an amaituko da

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak aurten ere Kirol Campusa antolatuko du Aste Santurako: Apirilaren 2tik 4ra eta 10etik 13ra izango da. Zazpi egun horietan, 9:30etik 12:30era, kirol desberdinak egiteko aukera izango dute partaideek. Interesatuak kiroldegian eman dezakete izena, martxoaren 23a baino lehen.

Mekatar xake taldea, bigarren postuan

Mekatar xake taldea sailkapeneko bigarren lekuan dago, Gros taldeari 2,5-1,5 irabazi ostean. Bi jardunaldi falta dira txapelketa amaitzeko, eta lehenengo bi sailkatuak igoko dira mailaz. Asteburu honetan Mundaroren kontra jokatu dute.

Apirilaren 15ean jokatu dute Mendaroko mendi lasterketa

Mendaroko Txirriindulari elkarteak Mendaroko II. mendi lasterketa antolatu du, apirilaren 15erako. Lehenengo Etun mendira igoko dira lasterkariak, handik Madariaga auzora joateko. Ondoren, hiru kilometroko jaitzieraren ostean, Kilimon erreka ondora jaitziko dira. Handik gora, igoera gogorra izango dute, eta Larraskanda baserri ondotik pasata, Otarreko antena iritsiko dira. Hemendik, gainez-gain, erentza baserri ondotik, Gaintxipixa mendi azpikaldeira irtengo dira lasterkariak, Lizarpe gainera. Ondoren, Garalutz mendira joko dute lasterkariak, eta handik dena beherantz izango dute, Herriko Enparantzaraino. 24 kilometrotan, 1350 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute lasterkariak. Interesatuak www.herrikrossa.com webgunean eman dezakete izena aurrez, 15 euro ordainduta. Dena den, egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, 18 eurotan. Informazio gehiago, <http://mtemendaro.wordpress.com/> helbidean.



BARREN Elgoibartik kanpo jasotzen dutenentzako oharra

2012ko harpidetza kuotak ondorengoak izango dira:

- ▶ Euskal Herria eta Espainia: **21€** - Bazkideek: **17€**
- ▶ Europa: **31€** - Bazkideek: **25€**
- ▶ Europatik kanpo: **42€** - Bazkideek: **34€**

Norbaitek harpidetza eten nahi badu, jar dadila gurekin harremanetan:
943 744 112 (Ainhoa) edo barren@elgoibarkoizarra.com

Pilotari handiek eta txikiek bat egin zuten Plaza Handian, Ikastolak antolatutako Pilota Egunean

16 pilota partida jokatu zituzten guztira Ikastolako neska-mutilek

Joan zen zapatuan ospatu zuten Pilota Eguna, Elgoibar Ikastolak antolatuta, eta aurten, estreinako aldiz Plaza Handian egin dute pilotaren jai. Ikastolak 50 urte bete-ko ditu aurten, eta ospakizun ekingen barruan, Pilota Eguna Ikastolako frontoitik ateratzea erabaki zuten antolatzaileek. Eguna eguzkitsu esnatu zen zapatuan, eta Plaza Handia jendez gainezka egon zen, Elgoibarko pilotarien harrobia nolakoa den ikusteko. 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutileen arteko 16 partida jokatu zituzten guztira, eta nor baino nor aritu ziren tantoak egiteko lehian. Horrez gain, pilotan dabilzan ikasle ohiek ere hartu zuten parte zapatuko jaialdian. Jonatan Garatek eta Haritz Arribilagak 16 eta 13 irabazi zieten Iker Txurrukari eta Asier Lizarralderi. Guztira, 68 pilotari aritu ziren jokoan.

Eta sari banaketarako pilotari handiak etorri ziren Elgoibarko Plazara. Aitor Mendizabal, Kepa Peñagarikano eta Aritz Laskurain pilotari profesionalek eman zituzten sariak, antolatzailen eta Udaleko arduradunen laguntzaz.



Mancebok eta Etxeberriak Gipuzkoako pala txapelketako finala jokatuko dute gaur



Eulogio Mancebok eta Andoni Etxeberriak (ezkerreko bikotea) Udaberri Txapelketa irabazteko bigarren aukera izango dute gaur. Iaz ere lortu zuten finalera iristea, baina ezin izan zuten txapela jantzi. Aurten, baina, denboraldi aparta egiten dihardute: txapelketako lehen partida galdu zuten, baina ondoren, garaipenak besterik ez dituzte pilatu. Finalerdietan 25-22 irabazi zioten Eibarko bikoteari. Finala Errenterian jokatuko dute gaur, Goierriko bikotearen kontra.

Aste Santuan Aran Bailarara, Morkaikorekin

Morkaiko mendizale elkar-teak Aran Bailarara irteera antolatu du Aste Santurako, eta mendian ibiltzeko edo Baqueira Beret estazioan eskiatzeko aukera egongo da. Autobusa alokatzea garesti irteten dela jakinarazi dute antolatzaileek, beraz, autoz joateko plana egin dute. Apirilaren 5etik 9ra izango da egonaldia, eta Vielhako Pirene hotelean hartu dute ostua, pentsio erdian. Interesatuek 160 euro ordaindu behar-ko dituzte izena ematerakoan. 25 laguntzako lekua dago, eta izena emateko azken eguna martxoaren 22a izango da. Informazio gehiago 653 010 697 telefonon.

Tecnifuelle senior nesken taldeak eskubaloiko euskal liga irabazi du

Alkorta igoera faserako sailkatu daiteke asteburuan



Tecnifuelle senior nesken taldeak eskubaloiko Euskal Liga irabazi du. Joan zen asteburuan Aialaren kontra 27-21 irabazi zuten elgoibartarrek, eta Gasteizko IES Construcciones taldeak galdu egin zuenez, matematikoki txapelketako irabazleak dira elgoibartarrak, liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan. Tecnifuelle taldeak, beraz, igoera fasea jokatu du, eta mailaz igotzea da euren helburua. Alkorta senior mutilen taldeak, bestalde, partida erabakiorra jokatu du bihar, Romon. Sailkapeneko hirugarrenaren kontra jokatu dute elgoibartarrek, eta irabaziz gero, bigarren postuari eutsiko diote. Bigarren postu horrekin, lehenengo nazional mailara igotzeko fasea jokatu luke Alkortak. Sanlok autobusa antolatu du partidua ikustera joateko. 16:00etan irtengo da, Madalako errotondatik.

Iñigo Larizek bigarren egin du Euskadiko Kopan

Iñigo Larizek Regil mendi eski trabiesian hartu zuen parte joan zen domekan, Asturiasen. Espainiako taldekako txapelketa izateaz gain, Euskadiko eski kopako azken proba zen. Elgoibartarrak zazpigarren egin zuen, Mikel Navarro urretxuarrekin taldea osatuz, baina lortutako puntuei esker, bigarren lekuan bukatu du Euskadiko kopa, bigarren urtez jarraian. Bestalde, Etxebarriko Gazte Asanbladak antolatuta, Kalamuara igoera jokatu zen joan zen zapatuan, eta Larizek bigarren egin zuen, Ionut Zinca korrikalariaren atzetik. Elgoibartarrak 31:12 denbora behar izan zuen, irabazleak baino hiru segundo gehiago.



EMAITZAK

FUTBOLA

Portugalete 2 – Haundi 0 (3. maila)
Elgoibar 1 – Bergara 1 (1. erreg.)
Elgoibar 2 – Mariño 2 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 8 – Urnieta 2 (Kad. A)
Zumaiako 2 – Elgoibar 2 (Kad. B)
Real Sociedad 3 – Elgoibar 2 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 1 – Urnieta 5 (Inf. txiki)
Elgoibar 5 – Amaiak Bat-Mutriku 1 (Aleb.)
Elgoibar 0 – Aloña Mendi 2 (Aleb.)
Urola 2 – Elgoibar 1 (Neskak)

PILOTA

Lagunak 2 22 – Andoain 18 (Jub.)
Lagunak 1 22 – Bergara 20 (Jub.)
Lagunak 22 – Eibar 19 (Nag.)
Arrasate 22 – Lagunak 15 (Nag.)
Pala
Lagunak 1 23 – Lagunak 2 25 (Nag.)

ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 40 – Soralue Bergara 31 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 27 – Aiala Zarautz 21 (Sen. nesk.)
Beristain Elg. 34 – Ordizia 34 (Jub. mut.)
Errotaberri 36 – Lauko Elg. 19 (Jub. nesk.)
Grupo Eibar Elg. 28 – Aloña Mendi 23 (Kad. mut.)
IMH Elg. 24 – Aiala Zarautz 18 (Kad. nesk.)
Leizaran 26 – Astigarraga Elg. 23 (Kad. nesk.)
Leizaran 32 – Bankoa Elg. 10 (Inf. mut.)
Eibar 25 – Txarriduna Elg. 27 (Jub. nesk.)
Udarregi 23 – Ikus Elg. 27 (Inf. nesk.)
Aterpe Elg. 13 – Ereintza 28 (Inf. nesk.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 17

19:30 Concepto – Ebrosala (2B maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 17

12:30 Elgoibar – Zestoa (Kad. B)

16:00 Elgoibar – Beti Gazte (Erreg.)

Domeka, 18

10:00 Elgoibar – Aloña Mendi (Aleb.)

12:00 Elgoibar – Martutene (Inf. txiki)

16:00 Elgoibar – Zumaiako (Ohorezko inf.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 17

10:00 Txarriduna Elg. – Urola (Inf. mut.)

11:15 Bankoa Elg. – Amenabar (Inf. mut.)

12:30 Ikus Elg. – Aiala (Inf. nesk.)

16:00 Lauko Elg. – Bera Bera (Jub. nesk.)

17:30 Tecnifuelle Elg. – Askartza (Sen. nesk.)

PILOTA

Domeka, 18

12:00 Lagunak – Antiguoko (Kad.)

MANEX ALTUNA

Itziarren Semeak taldeko gitarra-jolea

Itziarren Semeak talde mungiarrek laugarren lana kale-ratu berri du urtarrilean, eta bihar, Arkada Social talde arrasatearrarekin batera kontzertua emango dute Gaztetxean. Jarraitzaileek 22:30etik aurrera izango dute lan berriaz goatzeko aukera.

“Elgoibarren oso ondo tratatu izan gaituzte beti, eta bueltatzeko gogo geneukan”

‘Itziarren semea hori duk mutila...’ Zuen izena nondik datorren ez da go galdetu beharrik, ezta?

Umetako kontuak dira; gure ama -lbon abeslaria eta ni anaiak gara eta- Pantxoa eta Peioren jarraitzailea zen, eta kotxean *Itziarren semea* abestia kantatzen joaten ginen beti.

Eta, zergatik izen hori taldeari?

Musika taldea gure ideiak aldarrikatzeko sortu genuen, eta tamalez gaur egun ere tortura kasuak gertatzen dira komisaldegietan. Hori salatu nahi genuen izenarekin.

Koadrodun alkandora, maoizko prakak eta espartinak jantzita agertzen zarete eszenatokian. Nondik egin duzue ihes?

Modernoen artean, orain modan dauden arren, gu izan ginen koadrodun alkandorak berriz modan jarri zituztenak! kar-kar-kar. Maoizko prakak eta alpargatek uda sasoi eta kostaldeko herrietako festak ekartzen dizkigute gogora.

‘Basque of Brixton’ izeneko diska berrian, baina, itxura-aldatuta zatozte. Gangsterrak dirudizue ia-ia. Musikan ere nabari da aldaketa?

EParen izenburuak The Clash taldeari egiten dio erreferentzia. Brixton auzoko beltzei bezala, euskalduoi ere gure eskubideak zapaltzen dizkigutela irudikatu nahi genuen. Horregatik Kaliforniako pantera beltzen gisan jantzi gara, ukabila altxatuta. Aldi berean, gaur egungo krisi ekonomikoa eta langileen kaleratzeak kokatu nahi genituen testuinguruan eta leku aproposa aurkitu genuen argazkia ateratzeko. Musikalki ere eman dugu pausu berri bat: teklatu bat sartu dugu taldean, eta beste doinu bat eman nahi izan diegu kantei. Poesia bat sartzen ere ausartu gara; nork esango liguke guri hori, ensaiatzen hasi ginenean!



Lehenago ere jo izan duzue Elgoibarren. Ez zarete hemengo publiko-arekin aspertzen?

Aspertu baino, ez ditugu inoiz ahaztuko! Orain bi urte kontzertu bat emateko deitu ziguten Gaztetxetik, eta astebate arinago etorri ginen Elgoibarrera data esaterakoan nahastu egin zirelako. Umorez hartu genuen gertatutakoa, eta horrek harreman bat sortu zuen gure artean. Gainera kontzertua eman genuenean bertsolari espontaneo bat igo zitzaigun taula gainera eta primeran pasatu genuen. Oso ondo tratatu izan gaituzte beti, eta horregatik, bueltatzeko gogoa geneukan.

Diska berriko sarrerako kantuak badu, gainera, Elgoibarrekin loturaren bat.

HankaHutsik taldea ezagutu genuenean txundituta geratu ginen, eta Ainhoa Mendibili poesiak idazteko eskatu genion. *Aulki hutsak* kantuak Ainara Ladron gazte elgoibartarraren kartzelaratzeari dauka oinarrian. Atxilotu zutenean herrian, etxean, lagunaren artean edo Gazte Asanbladan utzitako hutsuneaz egiten du berba testuak.

Doctor Deseokin Francisekin batera grabatu duzue Gau Luzeak kantua. Zuen gauak horren “Franciscanoak” izan ohi dira beti?

Luzatzen direnean, gustura zaudenaren seinale. Baina ez gara sexuaz hitzegiten ari... ala bai?

Eta, noiz arte luzatuko duzue biharko gaua?

Gaztetxean sortzen den giroak esango du. Gu beti gaude ondo pasatzeko prest eta asmo horrekin etorriko gara. Aurrekoetan etorri garenean jende ugari egon da, eta giro hura errepikatzea espero dugu. Gauak eta konpainiak erabakiko du hori.

Euskarazko herri ekimeneko hedabideek etorkizuneko erronkei aurre egiteko urratsak eman nahi dituzte

46 hedabideek onartu dute sektorearen diagnostia eta erronken dokumentua, tartean BARRENEK

Orain dela urtebete pasatxo elkarrekin hasitako bideari jarraiki, herri ekimenez sortutako euskarazko 46 hedabideek, BARREN tartean, agerraldi bateratua egin zuten martitzenean, Andoingo Martin Ugalde kultur parkean, sektorearen diagnostia eta erronka komunak identifikatzen dituen dokumentua sinatu eta jendaurrean aurkezteko. Etorkizunerako gakoak negozio eredia, lan baldintzak, kalitatea, lehiakortasuna, ikerketa eta elkarlana direla esanda, erakundeek hausnarketa mahai bateratuak osatzeko deia egin diete. Aurrera begirako eskakizunen artean, dirulaguntzak handitzeko eta publizitate instituzionala euskarazko hedabideetara bideratzeko eskaera egin dute.

Jasone Mendizabal (Topagunea), Joanmari Larrarte (BERRIA Taldea) eta Xabier Letona (Argia) izan ziren mahaiaren, baina euskarazko 46 hedabidetako ordezkarien babesa izan zuten ekitaldian.



Besteak beste, azken 25 urteetan euskararen ezagutzaren eremuan "urrats handia" eman dela aitortu zuten, baina ez erabileran. "Euskaraz ez badugu egiten, beste hiztun komunitate batzuek egingo dute gure ordezkari gazteak, frantsesek edo ingelesak. Eta gurea bezalako gizarte moderno batean nekez egingo dira urratsak hedabide sare indartsurik ezean".

Pisu ekonomikoa

Sektorearen pisu sozial eta kulturalaren batera, ekonomikoa ere nabarmendu

zuten: euskarazko hedabideen lana 450.000 lagunengana iristen da, eta horretarako 600 langile baino gehiago ari dira lanean, ehun hedabide baino gehiagotan. Guztira 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dute urtean, eta zazpi milioi eurotik gorako ekarpena egiten dute diru publikoetara, gizarte segurantza eta zergen bidez.

Ikuspuntu horretatik ere euren jardunaren garrantzia nabarmendu eta konfiantza hartzeko eskatu zuten euskarazko hedabideek.

Luzianoren margoak ikusteko aukera izango da Kultur Etxean, martxoaren 31ra arte



Luziano margolari elgoibartarraren margoak ikusteko aukera izango da Kultur Etxean, gaurtik martxoaren 31ra arte. Madrilen bizi da gaur egun artista elgoibartarra, baina urtero etortzen da Euskal Herrira, eta aurtengo bisita bere azken margolanak erakusteko baliatuko du. Gizarteko gorabeherak islatzen ditu Luzianok bere koadroetan, pintura espiritual eta anarkikoa uztartuz. Bere bizimoduaren isla ez ezik, bere jatorriaren ikerketa etengabea erakusten du Luzianoren pinturak; Euskal Herriko, Espainiako eta Europako historiarekin batera doan jatorriaren ikerketa, hain zuzen ere. Astelehenetik zapatara egongo da erakusketa zabalik, 18:30etik 20:30era.

'Bi anai' filma emango du Ongarrik, euskaraz

Ongarri zine-klubak *Bi anai* filma emango du datorren eguenean, hilak 22, euskaraz. Imanol Rayo zuzendari nafarraren lehen filma da, eta Bernardo Atxagaren *Bi anai* liburuan oinarrituta dago. Aita hil ostean, Paulo semeak anaia Daniel ezinduari ardura hartu beharko du. Pelikula 21:30ean hasiko da.

'Haizea eta sustraiak' dokumentala, Gaztetxean

Gazte Asanbladak antolatuta, Argia emanaldien baitan, *Haizea eta sustraiak* dokumentala ikusteko aukera izango da hilaren 23an, Gaztetxean. Iñaki Agirrek zuzenduriko lan honek Frankismoko fusilamenduak ditu hizpide. 22:30ean hasiko da emanaldia.

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. Orduka edo interna.
☎ **650 152 866**
- Emakumea zaintza eta garbiketa lanak egiteko prest. Asteaz zehar eta asteburuetan, orduka edo interna.
☎ **698 632 922**
- Gizona zaintzan, garbiketan edo baserrian lan egiteko prest.
☎ **632 798 768**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Zaintza, garbiketa...
☎ **659 813 248**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke gaueetan.
☎ **680 303 052**
- Gizonezkoa lanerako prest. Baserri lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat.
☎ **649 122 603**
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan.
☎ **652 446 228**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Emakumeak bi edo hiru logelatako pisua alokatuko luke.
☎ **602 490 595**

SALGAI

- Etxea salgai Gasteizen. Erdigunean, auzo lasaian. Hiru logela, sukaldea, bi komun, egongela-jangela, ganbara. Igogailua eta eraikin berri berria.
☎ **628 524 420**
- Etxebizitza salgai: 3 logela, komuna, egongela, sukaldea, igogailua eta gasa ditu. Pedro Muguruza etorbidean. 150.000 euro.
☎ **648 191 076**

BESTELAKOAK

- Bigarren eskuko maxi-cosia erosiko genuke.
☎ **635 706 537**
- Zorro gorri batean zegoen mugikorra galdu nuen karnabal-zapatuan, San Bartolome kale inguruan. Eskertuko dut.
☎ **690 220 989**
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrikoak eta butanozko edo kerozenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko!
☎ **677 898 633**

GARAJEAK


- Garaje itxia salgai, Erretxindi auzoan.
☎ **628 524 420**
- Garaje itxia salgai Urasandin, Anayak eraikinean. 13m2 eta goitegia.
☎ **620 856 768**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



Martxoaren 21ean,
BITXI TAILERRA LUDOTEKAN!
17:30etik aurrera.



Igande honetan, hilak 18,
MANIKURA TAILERRA izango dugu
arratsaldeko 17:00etan.
Izena emateko azken eguna, gaur, martxoak 16.



PINTURAK
KONPONKETAK
ALBAÑILERIA PINTURAZIA CARPINTERIA

Pedro Pérez Beristain
Xabier Kalea 2 sotoa 3 ☎ 943 74 36 52 - 639 76 09 19
pinturak@elgoibar.net

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXeko KONPONKETAK

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENen edo www.elgoiBARREN.net
webgunean

BARREN
astekarían
943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.com





• Zorionak, **Mikel**, zure hirugarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, denon partez.



• Zorionak, **Mari**, mar-
txoaren 19an 90 urte
egingo dituzulako. On-
do pasa! Lagunen par-
tezt.




• Zorionak, **Paule**, eta
muxu handi bat etxe-
koeen partez, astelehe-
nean 2 urte egingo di-
tuzulako.



• Zorionak, etxeko
futbolariari bere zazpi-
garren urtebetetzean.
Ondo pasa, **Jon!**
Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Nerea!** On-
do pasa, eta muxu
handi bat Mendaroko
familiakoen eta berezi-
ki, Paularen partez.



• Zorionak, **Paul!** Mu-
xu handi bat familiako
guztien, eta bereziki,
Lukaren partez.



• Zorionak, **Maddi**,
bihar 3 urte egingo di-
tuzulako. Etxeko guz-
tien partez, ondo pasa
igandean.



• Zorionak, **Julen**, zure
hirugarren urtebetetze-
an. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Haizea**, 5
urte handi egin dituzu-
lako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **June**, hila-
ren 18an 3 urte egingo
dituzulako. Patxo han-
di bat aitaxo, amatxo
eta Gariren partez.



• Zorionak, **Maia**, hila-
ren 21ean 6 urte egin-
go dituzulako. Familia-
koeen partez, muxu
handi bat, bereziki,
Gorkaren partez.



• Zorionak, **Kepa**, do-
mekan 3 urtetxo bete-
go dozuz-eta! Patxo
handi bat etxekoen,
eta bereziki, Jonen
partez.



• Zorionak, **Marinal** Az-
kenean iritsi da zure
eguna! Muxu asko fa-
miliakoen eta bereziki,
June, Naroa eta Paula-
ren partez.



• Zorionak, **Maren**, da-
torren astelehenean 9
urte egingo dituzulako.
Muxu handi bat fami-
liakoen partez.



• Zorionak zure 21. ur-
tebetetzean! Ostirala,
gainera! Ondo ospatu!



• Zorionak, **Uxue**, mar-
txoaren 19an 3 urte
egingo dituzulako. Hiru
muxu handi aitaxo,
amatxo eta Iratiren
partez.



• Zorionak, **Lur**, etxeko
erregiari, asteartian 3
urte beteko dozuz-eta!



• Zorionak, **kosalinda!**
Beti izango dugu... Be-
ronia! Beti izango du-
gu... Brie! Beti, eguaz-
tenak!



• Zorionak, **bikote!** Ondo pasa zuen urtebetetze
eguna! Patxo handi bat, etxeko guztien partez.

ZORIONAK, JUAN MARI!



Zorionak **Juan Mari!** Hurrengua plazan ospatuko dogu danon artian. Ani-
mo eta segi gogor.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra 4€,
argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**
Erretratu bakarreko agurra 3 €,
argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia**
baino lehen ekarri behar dira
BARRENEKOBULEGORA, 12:00ak baino lehen,
edo barren@elgoibarkoizarra.com
e-postara bidali.

16 barixakua

Kultura

18:30 Erakusketa

Luzianoren margoak

erakusketa inauguratuko dute gaur, eta hilaren 31ra arte egongo da ikusgai. Kultur Etxean.

17 zapatua

Bilera

11:30 Greba batzorde irekia osatzeko deialdia

Elgoibartar arduratsu guztiak daude gonbidatuta, lan erreforma eta martxoaren 29ko grebari buruz hitz egiteko. Kultur Etxean.

Tailerra

10:00 Bioenergetika

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean

Musika

22:30 Kontzertuak

Arkada Social eta Itziarren Semeak taldeek kontzertua eskainiko dute, Gaztetxean.

18 domeka

Kizola

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta, Andutz (612 metro) mendira egingo dute irteera.

Musika

12:30 Udal musika bandaren kontzertua

Udal musika bandak kontzertua eskainiko du, Herriko Antzokian. Zuzendaria, Gorka Mujika. Egitaraua:

- *Call of the champions* (John Williams)
- *Danzas eslavas* (A. Dverak)
- *El señor de los anillos* (R. Ford)
- *The typewriter* (L. Anderson)
- *On Broadway* (Faust Scheffer)
- *Hava Nagila* (Santandreu Sanz)

21 eguaztena

Musika

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia, Herriko Antzokian.

22 eguena

Musika

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia, Herriko Antzokian.

OKINDEGIA

18 domeka EIZAGIRRE

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

16	Etxeberria	Etxeberria
17	Fernandez	Garitaonandia
	Goizez: Garitaonan.	
18	Fernandez	Garitaonandia
19	Yudego	Yudego
20	Zabaleta	Yudego
21	Barrenetxea	Barrenetxea
22	Ibañez	Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«J. Edgar»

16, barixakua: 22:15
17, zapatua: 19:00/22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30



«J. Edgar» Zuz.: Clint Eastwood.

EEBB, 2011. 137 minutu. Drama. Aktoreak: Leonardo DiCaprio, Naomi Watts, Armie Hammer, Josh Lucas. J. Edgar Hoover Estatu Batuetako gizonik boteretsuenetakoa zen. FBIko zuzendaria izan zen, eta hiru guda eta zortzi lehendakari gainditu zituen. Ezagutza boterea zen bere ustez, eta ezagutza hori edozein modutan erabiltzeko prest zegoen beti. Gizon honen bizimodua kontatzen du filmak.

«Bi anai» Zuz.: Imanol Rayo. Espainia,

2011. Drama, 104 minutu. Aktoreak: Bingen Elortza, Kandido Uranga, Oihan Lopetegui, Loreto Mauleón, Aitor Coterón. Bernardo Atxagaren Bi anai liburuan oinarritutako filma da. Aita hiltzen denean, anaia gazteak behar bereziak dituen anaia nagusiaren ardura hartu beharko du.

«Los Muppets»

18, domeka: 16:30

«Bi anai»

(Ongarri zinekluba)

22, eguena: 21:30



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

KEMEN BELARDENDA.

NATUROPATA, IRIDIOLOGOA ETA HOMEOPATA.

Belardietetika eta fitoterapia, janari biodogikoa, "Esencias Trinidad", BACH loreak... Kontsultak:

- Programazio neurolinguistikoa (P.N.L.)
- "DIETA FACIL", pisu kontrola
- Makrobiotika eta elikadura energetikoa
- Famili Konstelazioa (banakako eta taldeko saioak)
- Bioenergia
- Reflexo-energia (haurdunaldietan ere)
- Aurpegiko lifting japoniarra

Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 29 - Elgoibar
Tel: 943 744 031
Aurretiko zita

SANATANA DHARMA YOGA ELKARTEA

Anginei aurre egiteko masajea.

Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaron astelehen eta asteazkenetan: 15:00-16:30

Urasandi, 9 - Elgoibar
Tel: 943 748 593 (Idoia)
685 722 131

ORTOPEDIKAK

ITZIAR SARASKETA

Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00

San Frantzisko, 12 - Elgoibar
Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Bartolome, 10 - Elgoibar
Tel: 943 743 734

UZURI

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

VICTORIA IRAEGI

(Esku-terapiak: kiropraxia, drantzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

PODOLOGOAK

OINBERRI

Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25- Elgoibar
Tel: 943 741 795

IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoaren zainketa.

- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

Ordutegia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645

FISIOTERAPIA

AINHOA FISIOTERAPIA

Fisioterapia eta osteopatia.

Jausoro, 6 behea.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. ERREABILITAZIO ZENTROA

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

San Inazio, 2 - Elgoibar
Tel.: 943 743 740

fisio&más

Fisioterapia Aurreratu eta Kirol Berregokitzea

- Esku-terapia
- E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- Esku Drainatze linfatikoa
- Mesoterapia

- KIROL BERREGOKITZEA
- OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA

Aupa Zen Medikuntza Estetika Zentroa
Jausoro Plaza, 1 - Elgoibar (Sta. Klaran, Udaletxeko zubitik gertu)
Tel.: 943 743 740

TX4 Fitness Gimnasioa
Iifar Kale, 3 - Eibar
Tel.: 667 953 628

HORTZ KLINIKAK

IRALE

Errosario Kalea, 7 behea
Elgoibar
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta implanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo medikua
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

BEITIA ARRIOLA

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Elgoibar
Tel: 943 531 869



IZARRRAITZEN KONKISTA



APIRILAK 10-13

Izen-ematea:

Martxoak 23ra arte
Elgoibariko Izarran
edo Gaztelekuan

12-18 urtekoentzat

(1994-1999 jaiotakoentzat)

GAZ-T



**ELGOIBARAKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

